

# MUTRIKU: OROIMENAREN MARKAK



1936ko gerra garaian  
Mutrikuco herrigunean  
egon ziren kokaleku esanguratsuak  
batu ditugu mapa honetan.

Gerra zibilaren memoria  
jaso eta zabaldu nahian,  
**Saturrarán Elkarteak**  
antolatutako ibilbidea,  
**Badihardugu Euskara Elkarteak**  
sortua.



testigantza eta  
informazio gehiago  
online mapan



1

## SINBOAKO BABESLEKUA

**Lekukoa: Rosario Arrizabalaga**

Nazionalak Irisarretik heldu ziren Mutrikura. Sinboako babeslekura joaten ziren.

2

## GOIKO PLAZAN KARLISTEN ZIRKULOA

**Lekukoa: Pepita Larrañaga**

Zirkulo karlista non zegoen. Gau-ekitaldiak. Urtean behin, errosariora deitzen zuten.

3

## AMETZA TABERNAN BATZOKIA

**Lekukoa: Benedikta Olazabal**

Errepublikanoen egoitza, Margarineko jatetxearen ondoan zegoen; abertzaleena Ametza tabernan; karlistak Kulixka gainean eta Emakume Abertzaleak Tranpa kalean, farmazia zegoen etxean. Juanita Piker, emakumeen batzokiko lehendakaria zen.

4

## POLBORINA

**Lekukoa: Pepita Larrañaga**

Nazionalak lehenengo eta gero erreketekak eta soldadu italiarrak, irailtik otsailera geratu ziren Mutrikun. Garai hartan "Luxioneko" etxean zeuden eta polborina deitzen zioten.

5

## KARTZELA ERDIKO KALEAN

**Lekukoa: Rosario Arrizabalaga**

Erdiko kalean kartzela egon zen. Aita bertan preso egon zen, nazionalak herrian sartu aurretik. Zaintzaileak herriko jendea ziren.

6

## ZABIEL JAUREGIAN INTENDENTZIA

**Lekukoa: Pepita Larrañaga**

Maristen etxea zeneko gaur egungo Zabiela etxean, soldaduentzat ekonomatua zegoen. Intendentzia ere izan zen.

7

## BEKO PLAZAN NAZIONALAK

**Lekukoa: Benedikta Olazabal**

Beko plazan soldadu nazionalak emakume bati ilea moztu zioten eta beldur asko pasa zuten guztiek.

8

## ZAPATERONEKO ETXEA ERREKISATUTA

**Lekukoa: Itziar Andonegi**

Etxea errekisatu egin zioten eta bertan geldituko ziren soldaduentzat oheak prestatu behar izan zituzten. Egunero joaten ziren errekisatutako haien etxera oheak egitera, etxea txukuntzera...

9

## BARE-BARE JATETXEAN SOLDADU ALEMANIARRAK

**Lekukoa: Benedikta Olazabal**

Gerra amaitzean, Mutrikura bueltatu zen eta familiako jatetxean lanean hasi zen, Bare-Baren. Pianoa ere jotzen zuen bertan. Behin, II. Mundu Gerratik ihesi zebilen soldadu aleman bat agertu zen.



testigantzak entzun



## 10 ZENTRO ERREPUBLIKANOA

Lekukoa: Itziar Andonegi

Montalivet-en Emakume Abertzaleen zentroa zegoen, Goiko Plazan karlisten egoitza eta errepublikanoena Osinalden. Itziarrek errepublikanoen kantak etxetik entzuten zituen. Errepublikano gutxi zegoen Mutrikun.



## 11 ALONDEGIA ETA ELIKAGAI ESKASIA

Lekukoa: Rosario Arrizabalaga

Alondegira olio bila joaten ziren. Galtzerdiekin olio batzen zuten.



## 12 KOMENTUAN CNT-KOAK SARTU NAHIAN

Lekukoa: Itziar Andonegi

CNT-koek Mutriko komentura sartu nahi izan zuten, lo egiteko. Mojak kanpaiak jotzen hasi ziren eta Joakin Txiki laguntzera joan zen, tornutik sartuta.



## 13 KOMENTUKO TUNELA BABESLEKU

Lekukoa: Jesus Furundarena

Komentuko kanpaiak jotzen zituzten bonbardaketa hasten zenean. Komentu azpiko tunel eta sotoetan gordetzen ziren.



## 14 EMAKUME ABERTZALE BATZA

Lekukoa: Pepita Larrañaga

Emakume Abertzaleen egoitza Tranpa kalean zegoen, farmaziaren alboan. Zer egiten zuten bertan. Nortzuk sortu zuten egoitza.



## 15 ARRIETANEKO JAUREGIAN SOLDADU ITALIARRAK

Lekukoa: Rosario Arrizabalaga

"Txurrukaneko" etxean soldadu italiarrak egon ziren. "Al Italiano" eta "El Abisinio" abesten zuten haiekin.



## 16 FRONTOIAN SOLDADU ITALIARRAREN INSTRUKZIOAK

Lekukoa: Kandido Urreizti

Frontoia nolakoa zen: ez zuen estalperik. Soldadu italiarrak frontoira joaten ziren instrukzioak egitera. Soldaduen kantu zati bat abesten du.



## 17 MUTRIKUTIK ITSASOZ IRTETZEN

Lekukoa: Itziar Andonegi

Arrantzan ateratzea debekatua egoteaz gain, itsasontzi guztiak alde eginda zeuden. Aita Barandiaranek Mutrikitik egin zuen ihes 1936an, nazionalak sartu aurretik.

